

Ipar Euskal Herriaren aitorpena. Lurralde Elkargorantz aitzineratuz

ELA SINDIKATUAREN AGIRIA

ELAKo Nazio Batzordeak, Baionan bildu delarik, arreta handiz aztertu du Ipar Euskal Herriaren aitorpen instituzionalaren auzia zertan den.

ELAk balio handia ematen dio aitorpenaren alde 2012an egin den dinamika guztiari, hala nola Garapen Kontseiluaren lana, autogobernu hipotesi desberdinen azterketa sakona, biltzarrak eta, azkenik, dezentralizazio ministro anderearekin izandako bilera. ELAren aburuz, joan den azaroaren 24an Hautetsien Kontseiluan Lurralde Elkargo Berezi baten alde izan zen bozketaren proposamena ia aho batez onartu zen- une biziki garrantzitsua izan zen Iparraldearentzako fase politiko gogoangarri honetan.

Hain zuzen -eta gobernu frantsesak erabaki dezakeena gorabehera-, jadanik egin da, gure irudiko, urrats handi bat: aldarrikapen instituzionalak egun sekula baino babes handiagoa du. Errebindikazioa egun pluralagoa da, indar politiko eta hautetsi gehiago engaiatu da bere alde, eta gizartean ere atxikimendu zabalagoa du. Esan daiteke, hortaz, 1981tik hona inoiz izan den unerik egokiena bizi dugula; orduan Mitterrand presidentea izango zenak Euskal Herriko departamendu bat sortzea proposatu zuen.

Lorpen hauek funtsean Batera plataformak egin dako lanaren fruitu dira; beronek, duela hamar urtetik hona lau helmuga ezarri baititu: koadro instituzional bat; euskara hizkuntza koofiziala izatea; unibertsitea, eta Euskal Herriko laborantza ganbara. Euskal Herriko Laborantza Ganbara behin betiko finkatu izanak, orain aztertzen ari garen prozesu instituzionalarekin batera, plataforma honen estrategia azkartu egin du.

Hautetsien kontseiluko bozketaren, elkarlanaren gailur gisa, dagoeneko erreferentzia bat da aitzinera egin eta Euskal Herriaren etorkizuna eraiki nahi dugun erakundeontzat, baita Hegoaldekoentzat ere. Prozesu honetatik gauza bat ikas dezakegu: eztabaida leial eta zorrotza egiteak helburu politikoen eta kudeaketa-lanabes konkretuen inguruan, eragileen arteko aurreiritzi asko baztertu egiten du, eta posizio immobilistetatik, blokeo jarreretatik askatzeko aukera ematen du. ELAren aburuz balio izugarria du indar politiko eta sozial desberdinen artean helburu partekatutako definitu eta adostutako estrategiak garatzeak.

Hegoaldean diharduen sindikatu garen aldetik, Nazio Batzordeak Manuel Valls barne-ministro frantsesaren hitzei ere erreparatu die. Iparraldearen afera instituzionari buruz egin duen lehen adierazpena erreferentziako egunkari espainiar batean egin izanak esa-

nahi indartsua du, izan ere, ukatu nahi duen horixe berresten baitu, alegia, Pirinioen bi aldetara nazio bat badela, eta nazio horren existentzia ez dagoela bere gobernuak egin dezakeen aitorpen instituzionalaren baitan.

Bestalde, Iparralderako euskal egitura administratibo baten aldeko eztabaida ukatzea, esanez "gauzak oso argi ikusten ditugu, eta ETAk armak entregatzen ez ditueno, tinko egongo gara" ez da soilik astakeria bat. Euskal etorkizun instituzionalaren auzia erakunde klandestino baten jokabideari lotuta euskal herritarrei irain egiten die, eta mespretxu handia adierazten du hautetsi demokratikoekiko, baita bere alderdikoekiko ere.

Seguruenik, Hollande gobernuak ez dauka pisuzko argudio politikorik instituzionalizatzearen aldeko euskal bultzada geldiarazteko. Horregatik errebindikazioa zikintzeko kanpaina bati ekin dio, horretarako propaganda antiterrorista erabili duelarik. Hau da, ELAren aburuz, Aurore Martin atxilotzearen eta salbuespeneko epaitegi baten, hots, Auzitegi Nazionalaren esku uztearen esanahia. Militante politiko baten atxilotzea, bere ohiko jarduera guztiz zilegi eta legezkoa delarik, eztabaida politikoa era ilegítimoan lokazteko egiten dute, eta horrenbestez modu negargarrian berresten da espainiar gobernuak Euskal Herriko darabilten politikaren iparra, "itun antiterrorista"; zoritxarrez, badirudi gobernu frantses berria ere itunarekin bat egin duela.

ELA oso pozik dago jendartearen gero eta zati handiagoa ari delako engaiatzen Ipar Euskal Herriaren instituzionalizatze prozesuan. Sindikatuak espero du gobernu frantsesak ere asmatzea egoten Iparraldean egin den debataren kalitate demokratikoaren eta hautetsiek eta euskal jendarteak adierazi duten konpromiso pluralaren mailan. Jendarte horrek erabakita dauka etorkizuna bere esku hartzea eta, beraz, ELAk halaber eskatzen du frantses gobernuak beretzat hartzea errebindikazio instituzionala datozen hilabeteetan.

Baionan, 2013ko Urtarrilaren 14ean.

ELA
EUSKAL SINDIKATUA